

Richard Oribe igerilari donostiarra bere mailan palmare onena duen kirolaria da. Beijingeko joko paralinpiarretatik dominaz beteta iritsi da.

## Dominaz betetako kirolaria

### ESTITXU ZABALA

**K**alean dabilela lagun askok geratzen dute zoriontzeko. Bai ezagunek baita ezezagunek ere. «Egun hauetan Javierrekin edo senideekin Ondarretatik pasiatzen nabilela jende ugari geratzen nau egindako lanagatik zoriontzeko», azaldu du Richard Oribe igerilariak. Bere kategorian historian palmare onena duen igerilaria da Oribe. Bartzelona, Atlanta, Sidney, Atenas eta Beijingeko joko paralinpiarretan parte hartu du eta igerilari aparta dela argi utzi du. Domina olimpiko mordo batzea lortu du: bederatzirezko, bost zilarrezko eta brontzezko bat. Gainera, azken jokoetan 200 metroko frogan munduko errekorra hautsido. Olinpiaden aurreko astean bukatu ziren, baina geratu gabe dabil Oribe oraindik ere. Prentsa, irrati eta telebistarako elkarrizketak egin ten dabil ia egunero, hainbat omenaldi ere egin dizkiote. Oraindik ere bete beharreko konpromiso ugari geratzen zaizkio.

### Jende ugari geratzen nau egindako lanagatik zoriontzeko

Bost olinpiadetan parte hartze-  
ra iritsi diren kirolari gutxi daude-  
la azpimarratu du Javier Aymeric  
Oriberen entrenatzaileak. «Mailla  
horretara iritsi direnak egon dira eta  
oraindik ere badaude, baina oso gutxi  
dira. Gainera berak lortutako arrakasta  
lortzea oso zaila da, oso ona izan behar-  
dago», azaldu du Aymeric-  
kek. Entrenatzaileak azaldu duenez,  
hasieran kostatu egiten da kirolari  
bakoitzari dagokion kategoriaz  
ezartzea. Oribe S4 mailan finka-  
tua dago orain eta lortutako guz-  
tiz konturatzen dela dio, «kontu-  
ratzen naiz nire mailan onena

naizela eta oso pozik nago lortu-  
takoarekin».

Ez zen erraza izan aurtengo jo-  
koetan parte hartuko zuen eraba-  
kitzea. Entrenatzailearen esane-  
tan, tentsio uneak egon ziren, «es-  
fortzu hori pasatzeko prest  
zegoen jakin behar genuen. Bera  
izan zen parte hartzea erabaki  
zuen, gero bai, gainontzeko guz-  
tiz ahaztu behar izan genuen». Olin-  
piaden aurreko Bost hila bete-  
ak goiz eta arratsalde entrenatzen  
eman dituzte, luzaketa saioak,  
gimnasioa... Igerilariak eta ent-  
renatzaileak aspalditik ezagutzen  
dute elkar, «askotan ikuste hutsa-  
rekin badakit nola dagoen. Ent-  
renamendu gogor bati aurre egiteko  
prest egongo den ala ez».

### Beijingeko jarraitzaileak

Pekinen laster ohitu zirela diote  
entrenatzaile eta igerilariak. «Ez  
zara zure ingurutik ateratzen.  
Eraikin batean Espainiako talde  
guztiarekin ginen eta haiekin  
denbora asko pasa dugu olin-  
piadak iritsi aurretik egindako  
kontzentrazioetan. Ezberdin-  
tasun bakarra gurutzatzen ze-  
nuen jendea txinatarra zela  
zen». Jateko denetarik aukera  
zegoela azaldu dute, «jantoki  
erraldoi bat genuen, 4.000 la-  
guntzako prestatuam baina  
aukera oso zabala zen: Mc  
Donalds, janari asiarrak, janari  
mediterraneoak, interna-  
zionalak... ez zenuen zertan  
bertako jakiak jan behar-  
rik», azaldu du Aymeric-  
kek.

Frogak ikusten biltzen zi-  
ren txinatar mordoak harri-  
tzen ziela aipatu du ent-  
renatzaileak, «harmailetan  
17.000 txinatar elkartzen  
ziren. Gainera, askok Ri-  
charden alde egiten zuten,  
ez dakit zergatik, kurio-  
soa zen», azaldu du entrena-

tzaileak. Txinatarrek ki-  
rolariak heroiak bezala  
tratatzen zituztela dio  
Aymeric-  
kek. Kaletik ere  
jarraitzaile asko ager-  
tzen zitzaizkiela azaldu  
du, «behin pasatzera ate-  
ra ginen eta jendeak Ri-  
chard geratzen zuen arga-  
kiak atera eta autografoak  
eskatzeko».

Orain atsedean hartzeko  
gogoa du Oribe, atsedean fi-  
siko bano ardura da bu-  
rutik kendu behar duena,

orainarte entrenamenduetan  
pentsatzen ibili baita egunero.  
Seguraski bere arrebarekin Bale-  
ar irletara joango da egun batzuk  
pasatzera, han bere eguneroko  
errutinarekin hautsiko du.  
2012an Londresen jokatu-  
ko diren joko paralinpiarretatik  
ikusten ditu Oribe, «ongi baldin  
banago joango naiz, baina ez do-  
minak irabazteko asmoarekin,  
gozatzera baizik». Jarraitzeko  
baldintzetan dagoela uste du  
bere entrenatzaileak, baina ja-  
rraitzaile erabakitzen badu  
erritmoa lasaigoa izango  
dela argi du. Olinpiaden au-  
rretik txapelketa gehiago  
egongo dira eta horietan  
parte hartuko du.



HITZAren harpidedun egiteko:

**902-82 02 01**  
hitza@harpidetza.info

egunkaria buzoian,  
zozketak eta deskontuak,  
promozioetan abantailak,...